

JUAN MARI ABURTO BILBOKO ALKATEAK *BILBAO BALIOEN HIRIA* SARIAK EMAN DIZKIE ASKABIDEREN MARI MAKEDA, ARTAGAN IKASTETXEAREN KONEKTA ZAITEZ ETA IMQ IGURCO ZORROZGOITI AMESTUZ PROIEKTUEI

- Bilboko Udalak antolatutako sariak dira, Bilbao Balioen Agiriaren edukiak sustatzen dituzten entitateen ekimenei ezagutza agertzeko.
- Sariok Bilbao Balioen Hiria proiektuaren barruan daude, eta agiriak jasotzen dituen 17 balioak garatzeko ardatzetako bat dira; dagoeneko 2.108 atxikipen dauzka.
- [Askabideren Mari Makeda](#) proiektuak xedetzat du lan-aukerak eskaintzea kalitatezko enplegu bat lortzeko zailtasunak dauzkaten emakumeei.
- [Artagan](#) ikastetxearen [Konekta zaitez](#) proiektuak gertuko harreman bat lortu nahi du nahiz ikasleen artean, nahiz irakasleekin, zailtasunen bat dutenek ikastetxeko hezkuntza-komunitatearen laguntza jaso ahal izan dezaten.
- [IMQ IGURKO](#) ideiak, [Zorrozgoiti Amestuz](#), adinduen eta hainbat eragileren arteko harreman sozialak eta parte hartzea sustatzea du helburu—hala nola gazteen kolektiboak— Zorrotzako auzoan.
- Epaimahaiak hiru proiektu horiek bereizi ditu aurkeztutako 59 proiektuen artean (39 elkarteen kategorian, 14 ikastetxeen kategorian eta 6 entitate profesionalen kategorian). Saritutako proiektu bakoitzak 4.000 euro jaso ditu, saritutako ekimenarekin zerikusia duten xedeetarako erabiltzeko.

(*Bilbo, 2019ko otsailaren 18a*).- Askabideren **Mari Makeda** proiektuak, Artagango Santa Maria ikastetxearen **Konekta zaitez** proiektuak eta IMq IGURCOren **Zorrozgoiti Amestuz** proiektuak irabazi dituzte "**Bilbao Balioen Hiria Sarien**" lehenbiziko edizio honetako sariak, zeintzuk Bilboko Udalak antolatu baititu [Bilboko Balioen Agiria](#) sustatzen duten entitateen ekimenak saritzeko eta haiei ezagutza agertzeko.

Juan Mari Aburto Bilboko alkatea izan da buru gaur arratsaldean Udaletxeko Arabiar Aretoan sariak banatzeko egin den ekitaldian. Sari hauek Balioen Agiriko Garapenerako Planean aurreikusitako hiru ardatzetako bat eta hamabost ekimenetako bat dira hain zuzen ere, Bilboko Balioen Agiria osatzen duten balioak garatzeko eta sustatzeko onartu zen plan hori.

Juan Mari Aburtok gogorarazi du Bilbo eredua dela "*aldaketan, eraldaketan eta hobetzen*", eta hau erantsi du: "*bere burua balioen erreferente gisa aurkez dezan ere nahi dugu*". Alkateak berretsi egin du Udalak Bilbo Balioen Hiria proiektuaren alde egindako "*apustu argia*", "*zeina guztien parte hartzetik sortu baitzen, eta orain garatzen ari baita, guk espiritu horri berorri eusten diogun artean*". Aburto alkateak nabarmendu egin du "*elkarrekiko lanaren garrantzia Agiri horretako balioetako bakoitzean aurrera egiteko*", eta eskerrak agertu dizkie proiektu sarituen arduradunei, beren "*ahalegin, konpromiso eta eguneroko lanarengatik*". Bilboko alkatearen esanetan, balio horiek, "*banan-banan, gutako bakoitza*

hobetzen gaituzte pertsona gisa, eta, multzoan, gure hiriko gizartea ere hobea izan dadin eragiten dute".

3 PROIEKTU SARITU

- ✓ **Askabideren Mari Makeda proiektuak** irabazi du saria irabazteko xederik gabeko elkarte eta entitateen kategorian. Proiektu horren helburu nagusia da lan-aukerak eskaintzea kalitatezko enplegua lortzeko zailtasunak dauzkaten emakumeei.

Askabide elkarteak abian jarri du Senegaldik ekarritako afrikar ehunekin egindako arropa berezien joera berri bat, tokiko diseinatzaileek diseinatua eta elkarteko emakumeek josia.

Arropa horiek Gorte kaleko 4. zenbakian daude salgai: elkartzeko eta kultur fusiorako gune bat ere sortu da han.

Askabidek modaren munduko eragileen aholkularitza lortu du proiektu horretarako, eta baita ere auzoko merkataritzaren, formazio-zentroen, denden eta pertsonen aholkularitza.

Epaimahaiak, erabakian, adierazi du proiektu horrek, zeinak emakume migratzaileen kolektiboa baitu xede, "*Agiriaren balioetako asko*" jasotzen dituela, eta, gainera, "*ikasteko eta laneratzeko*" aukerak eskaintzen dituela. Gainera, epaimahaiaren ustez proiektua "*kohesionatua, inklusiboa eta berritzailea*" da.

- ✓ **Artagan ikastetxearen Konekta zaituz proiektuak irabazi du saria ikastetxeen kategorian.** Proiektuaren xedea laguntza-sare bat eratzea da, ikasleen eta irakasleen artean, gainerakoei eskainiz nork bere trebetasunak eta ahalmenak, eta gazteen artean eragitea elkarlana, elkartasuna, elkarbizitza, ilusioa, sormena eta baliabiderik eta motibaziorik ezagatik zailtasun handiagoak dauzkaten kolektibo jakin batzuen inklusioa.

Hain zuzen, xedea da sareak eratzea, konektatzea, ikasleekiko harreman hurbilago bat ezartzea. Halako moldez non zailtasunak dauzkatenek —diren ikasteko, harremanetarako edo pertsonalak— aukera izan dezaten Artagan hezkuntza-komunitatearen laguntza jasotzeko. Ikastorduetan nahiz ikastorduz kanpo garatzen da.

Epaimahaiak azpimarratzen duenez, proiektua "*eraldatzaila eta iradokitzailea*" da beste ikastetxe batzuentzat ere, eta haren izaera "*inklusibo eta belaunaldi artekoa*" nabarmentzen du, garrantzi berezia baitu "*gizarte-kohesioak eta maila guztietako dibertsitateak*". Horrez gain, epaimahaikideek, beren erabakian, ekimenak eskola-komunitatean nahiz auzoan izan duen eragina baloratu dute.

- ✓ **IMq IGURCOri ezagutza agertu zaio bere Espazio publikoen eraldaketa parte hartze bidezkoa proiektuagatik Zorrozgoiti amestuz entitate profesionalen kategorian.** Proiektuak Igurco eguneko zentroaren ondoko plaza birdiseinatu eta berrerabiltzeko asmoa du, espazio hori erakargarriago bihurtzeko gazte nahiz helduentzat, halako moldez non komunitatean integratzen lagunduko duen, eguneko zentroaren gertutasuna dela-eta.

Komunitate-partizipazio edo –integrazioko plan hori gauzatzeko, Zorrozgoitiko Igurco egoitzak ideia hori gauzatzen lagun dezaketen agenteen parte hartzea bilatu zuen

komunitatean. Hala, bada, proiektua [Gure Lurra](#) eta [Zorrotzako](#) elkarteekin batera garatzen da, eta [Euskal Herriko Unibertsitatearen](#) laguntzarekin.

Proiektuak dakarren proposamena hainbat belaunaldirentzat da; izan ere, ekimenaren xede nagusia dira adinduak eta zahartze aktiboa. Epaimahaiak oso balorazio positiboa egin du auzo-elkarteen, merkatarien elkarten eta Zorrotzako beste eragile sozial batzuen parte hartzearengatik.

(Dosierra erantsi da, saritutako 30 proiektuen informazio xehearekin).

Saritutako proiektu bakoitzak 4.000 euro jasoko ditu, saritutako ekimenarekin zerikusia duten xedeetarako.

PROPOSAMENAK ETA EPAIMAHAIA

Epaimahaiak hiru proiektu horiek bereizi ditu aurkeztutako **59 proiektuen artean** (39 elkarten kategorian, 14 ikastetxeen kategorian eta 6 entitate profesionalen kategorian). Epaimahaiak jasotako proposamenen "kantitatea eta kalitatea" nabarmendu ditu.

Epaimahaiak, sarituak aukeratzeko, faktore hauek hartu ditu kontuan: ekimenaren helburuak eta horiek Balioen Agiriarekin duten lotura; proiektuaren sormena, originaltasuna eta izaera berritzailea; partaide-kopurua eta belaunaldiarteko izaera.

2100 ATXIKIPEN BAINO GEHIAGO IZAN DITU BALIOEN AGIRIAK

"Bilbao Balioen Hiria Sariak" [Bilbao Balioen Hiria](#) proiektuaren barruan daude. Bilboko Udalak sustatutako ekimen parte-hartzailea da, baina, hasiera-hasieratik herritarren lankidetzari esker eratu eta garatua. Bilbao Balioen Hiriaren helburua da uria ezaguna eta aitortua izatea ez bakarrik birgaikuntza, berreskuratze eta eraldaketa ekonomikoagatik, baita beraren balioengatik ere. Helburua da erakundeen, era guztietako entitateen, enpresen, hedabideen, talde politikoen eta herritarren artean analisirako, elkarrizketarako, hausnarketarako eta lankidetzarako espazio bat sortzea.

Horren emaitza, 2018ko martxoan Udalbatzarrak Bilboko Balioen Agiria onartu zuen; datozen urteetan Uria eta bilbotarren elkarbizitza egituratu behar duten 17 balioak identifikatu ziren agiri horretan. Alde horretatik, uztailean Udaleko Gobernu Batzordeak Balioen Agiria garatzeko plana onetsi zuen, agirian jasotako 17 balioak gauzatzeko ekintzak txertatzeko.

Gaur arte, Bilboko Balioen Agiriak 2.108 atxikipen izan ditu, 1.990 norbanakoenak, eta 118 entitateenak.

Pertsona edo entitate oroko ager diezaioke atxikipena Balioen Agiriari. Nahikoa du horretarako inprimaki errez bat betetzea online, hemen: ww.bilbao.eus nahiz hemen: [Bilbao Balioen Hiria](#).

Agiriarekin bat egiten dutenek agiriaren edukiaren eta muinarekin bat datozen jarrerak eta jokabideak izateko eta sustatzeko konpromisoa hartzen dute. Agirian jasota daude bilbotarren ustez Uriko elkarbizitzaren ardatz izan behar duten 17 balioak: Giza Eskubideen errespetua, justizia soziala, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna, elkartasuna, dibertsitatea eta inklusioa, konpromisoa, ingurumen arloko jasangarritasuna, elkarbizitza, identitatea, ahalegina, erantzunkidetasun, partaidetza, konfiantza, sormena, intzotasuna, ilusioa eta osasuna.

EL ALCALDE JUAN MARI ABURTO ENTREGA LOS PREMIOS **BILBAO BALIOEN HIRIA** A **MARI MAKEDA** DE **ASKABIDE**, **CONÉCTATE** DEL COLEGIO ARTAGAN Y **SOÑANDO ZORROZGOITI** DE IMQ IGURCO

- El Ayuntamiento de Bilbao organiza estos premios para reconocer las iniciativas de entidades que impulsan el contenido Carta de Valores de Bilbao.
- Estos galardones se enmarcan en el proyecto Bilbao Balioen Hiria y son uno de los ejes para desarrollar los 17 valores del documento, que cuenta ya con 2.108 adhesiones.
- La iniciativa de [Askabide](#), [Mari Makeda](#), tiene como objetivo ofrecer una salida laboral a las mujeres que presentan dificultades para acceder a un empleo de calidad.
- El proyecto del [Colegio Artagan](#), [Conéctate](#), trata de establecer una relación cercana entre el propio alumnado y también con el profesorado, para que quienes tienen cualquier tipo de dificultad puedan ser ayudados por la comunidad educativa del centro.
- La idea de [IMQ IGURCO](#), [Soñando Zorrozoiti](#), nace para fomentar las relaciones sociales y promover la participación activa de las personas mayores con diversos agentes, como colectivos jóvenes y sociales, en el barrio de Zorrotza.
- El jurado ha distinguido estos tres proyectos entre los 59 presentados - 39 en la categoría de asociaciones, 14 en la de centros escolares y 6 en la de entidades profesionales-. Cada uno de los premiados ha recibido 4.000 euros para destinar a fines relacionados con la iniciativa.

(Bilbao, 18 de febrero de 2019).- Los proyectos **Mari Makeda**, de Askabide, **Conéctate** del Colegio Santa Maria de Artagan y **Soñando Zorrozoiti** de la Residencia y Centro de día Zorrozoiti de IMQ IGURCO han sido los galardonados en la primera edición de los “**Premios Bilbao Balioen Hiria**”, organizados por el Ayuntamiento de Bilbao con el objetivo de premiar y reconocer las iniciativas de entidades que impulsan la [Carta de Valores de Bilbao](#).

El Alcalde de Bilbao **Juan Mari Aburto** ha presidido la entrega de estos galardones, que ha tenido lugar esta tarde en el Salón Árabe del Consistorio. Estos premios son uno de los tres ejes estratégicos y una de las 15 acciones comprometidas en el [Plan de Desarrollo de la Carta de Valores](#), aprobado para promocionar y desarrollar los valores que integran el documento.

Juan Mari Aburto ha recordado que Bilbao se presenta como ejemplo de “*cambio, de transformación y superación*” y ha añadido que “*queremos que se presente también como referente de valores*”. El Alcalde ha reafirmado la “*apuesta clara*” del Consistorio con el proyecto Bilbao Balioen Hiria, “*que nace de la participación, que es de todos y todas, y que*

ahora en esta fase de desarrollo en la que estamos mantiene ese espíritu". El Alcalde Aburto ha destacado la *"importancia del trabajo conjunto para avanzar en cada uno de los valores de la Carta"* y ha agradecido a las personas responsables de los proyectos premiados su *"esfuerzo, compromiso y labor diaria"*. En sus palabras el Alcalde bilbaino ha destacado que los valores *"en lo individual, nos hacen mejores personas y en lo colectivo, nos hacen mejor sociedad"*.

3 PROYECTOS PREMIADOS

✓ El proyecto [Mari Makeda](#) de Askabide ha sido premiado en la categoría de **asociaciones y entidades sin ánimo de lucro**. Se trata de un proyecto que tiene como objetivo principal ofrecer una salida laboral a mujeres que presentan diferentes dificultades a la hora acceder a un empleo de calidad.

[Askabide](#) ha puesto en marcha una línea de ropa exclusiva y diferente hecha con telas africanas traídas de Senegal, diseñada por diseñadoras y diseñadores locales y confeccionada por mujeres de la asociación.

Las prendas se pueden comprar en la tienda situada en la calle Cortes 4, dónde también se ha creado un espacio de unión y fusión cultural.

Askabide ha contado con asesoramiento de agentes del mundo de la moda, del mundo del comercio, centros formativos, tiendas y personas del barrio.

En su fallo el jurado señala que este proyecto, centrado en el colectivo de mujeres migrantes, recoge un *"amplio espectro de Valores de la Carta"* ofreciendo además elementos de *"aprendizaje y oportunidades de inserción laboral"*. Además, considera que se trata de un proyecto *"cohesionado, inclusivo e innovador"*.

✓ El [Colegio Santa María de Artagan](#) se ha llevado el premio en la categoría de **centros escolares** con su proyecto [Conéctate](#). Se trata de una red de ayuda entre alumnado y profesorado para poner al servicio de los demás sus habilidades y potencialidades y fomentar entre los jóvenes la cooperación, la solidaridad, la convivencia, ilusión, creatividad y la inclusión de determinados colectivos que por falta de recursos y de motivación tienen más dificultades.

El objetivo es crear redes, conectar, establecer una relación cercana con el alumnado. De tal forma que quienes tienen dificultades, académicas, de aprendizaje, sociales, personales..., puedan ser ayudados por la comunidad educativa Artagan. Se desarrolla en horario lectivo y no lectivo.

El jurado subraya que se trata de un proyecto *"transformador e inspirador"* para otros centros educativos y destaca su carácter *"inclusivo e intergeneracional"* donde tiene especial relevancia la *"cohesión social y la diversidad a todos los niveles"*. Además, en su decisión las y los miembros del jurado han valorado la incidencia de la iniciativa tanto en la comunidad escolar, como en el barrio.

✓ **IMQ IGURCO, Servicios Sociosanitarios**, ha sido reconocido por su proyecto [Soñando Zorrozoiti](#), **transformación participativa de espacios públicos** en la

categoría de entidades profesionales. El proyecto trata de rediseñar y reutilizar la plaza anexa a la Residencia y Centro de día Zorrozoiti, para dotar a este espacio de mayor atractivo para jóvenes y mayores, de tal forma que favorezca la integración comunitaria por su cercanía al centro.

Para llevar a cabo este plan de participación o integración comunitaria, la residencia IMQ IGURCO Zorrozoiti buscó agentes participativos comunitarios que puedan participar y ayudar en la consecución de esta idea. Así, el proyecto se desarrolla junto con la [Asociación Gure Lurra](#) y la [Asociación Vecinal de Zorrozoita](#), con la ayuda de la [Universidad del País Vasco UPV-EHU](#).

La propuesta tiene un carácter intergeneracional, ya que en el centro de la iniciativa sitúa a las personas mayores y al envejecimiento activo. El jurado ha valorado muy positivamente la implicación de asociaciones vecinales, de comerciantes y de otros agentes sociales de Zorrozoita.

(Se adjunta dossier con detalle sobre los proyectos)

Cada uno de los proyectos premiados ha recibido 4.000 euros, que destinará a fines relacionados con la iniciativa premiada.

PROPUESTAS Y JURADO

En total, se han **presentado 59 proyectos** a estos premios, 39 en la categoría de asociaciones, 14 en la de centros escolares y 6 en la de entidades profesionales. El jurado ha destacado la "*cantidad y la calidad*" de las propuestas recibidas.

Para elegir los proyectos premiados el jurado ha tenido en cuenta factores como los objetivos de la iniciativa y su vinculación con la Carta de Valores, la creatividad, la originalidad y el carácter innovador del proyecto, así como el número de personas participantes o el carácter intergeneracional de la iniciativa.

MÁS DE 2100 ADHESIONES A LA CARTA DE VALORES

Los "**Premios Bilbao Balioen Hiria Sariak**" se enmarcan en el proyecto [Bilbao Balioen Hiria](#), una iniciativa participativa, impulsada por el Ayuntamiento de Bilbao, pero construida y desarrollada, desde un principio, en colaboración de la ciudadanía. Bilbao Balioen Hiria tiene como objetivo que la Villa sea conocida y reconocida no solo por su importante proceso de regeneración, recuperación y transformación económica y urbana, sino también por sus valores. Se trata de crear un espacio de análisis, diálogo, reflexión y trabajo colaborativo entre instituciones, entidades de toda índole, empresas, medios de comunicación, grupos políticos y ciudadanía en general.

Como resultado de este proyecto en marzo de 2018 el Pleno del Ayuntamiento aprobó la Carta de Valores de Bilbao en la que se identifican los 17 valores que deben vertebrar la convivencia de la ciudadanía bilbaina y que deben guiar de la Villa en los próximos años. En esta línea, el pasado mes de julio, la Junta de Gobierno del Consistorio aprobó el Plan de Desarrollo de la Carta de Valores, para implementar acciones que materialicen los 17 valores del documento.

Hasta la fecha, la Carta de Valores de Bilbao tiene 2.108 adhesiones, 1.990 de personas a título individual y 118 entidades.

Toda persona o entidad que lo desee puede **adherirse a la Carta de Valores** rellenando un sencillo formulario online disponible tanto en la [página web del Consistorio](#) como en la de [Bilbao Baiioen Hiria](#).

Quien se adhiera a esta Carta asume el compromiso de mantener, potenciar y promover actitudes y comportamientos acordes al espíritu y contenido de este documento, que plasma los 17 valores, que según las y los bilbainos, deben vertebrar la convivencia de la Villa, -respeto a los Derechos Humanos, justicia social, igualdad entre mujeres y hombres, solidaridad, diversidad e inclusión, compromiso, sostenibilidad medioambiental, convivencia, identidad, esfuerzo, corresponsabilidad, participación, confianza, creatividad, honestidad, ilusión y salud-.